



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak eta Euskadiko Orkestrak Calixto Bieitok zuzendutako Rudi Stephanen *Die ersten Menschen (Lehen gizakiak)* operaren Estatu mailako estreinaldia egingo dute

- Arriaga Antzokiak, Euskadiko Orkestrarekin lankidetzan, bere gain hartzen du opera honen ekoizpen exekutiboa, zeina, jatorrian, Amsterdamgo Dutch National Operaren ekoizpen bat baita.
- Calixto Bieito da eszena-zuzendaria eta Robert Treviño musika-zuzendaria, zeinak Euskadiko Orkestra osatzen duten 82 musikariak gidatuko baititu bere batutarekin.
- Annette Dasch, Daniel Schmutzhard, Simon Neal eta John Daszak dira Rudi Stephanen pieza interpretatzen duten lau ahots bakarleri bikainak, zeinak erronka musikal handi bati egingo baitiote aurre.
- Rebecca Ringst eszenografoak agertoki txundigarri bat sortu du Bibliako lehen familiaren istorioa gertatzen den paradisia berreraikitzeo, eszenatokia Arriagako besaulki patioraino sartuz.
- Sarah Derendinger ikus-entzunezko artista ikuskizunarentzat alde zuzeneko bideo-irudi ikusgarriak sortzeaz arduratu da, eta zuzeneko bideosormen-lan batez ere arduratuko da, ikuskizunaren zuzeneko irudiak proiektatuz.

Bilbo, 2024ko apirilaren 15a.- Arriaga Antzokia opera-eszenaren epizentroan kokatzen da berriz ere, *Die ersten Menschen (Lehen gizakiak)* operaren Estatu mailako estreinaldiarekin: **Rudi Stephan** konpositore alemaniarraren opera bat da, **Otto Borngräber**-en libretoa duen konposizio bikain bat, zeinetan lehen familia biblikoaren istorioa, sexu-bulkadaren eta bizitza espiritualaren artekoa, kontatzen baitu. Horrez gain, Arriaga Antzokiak, Euskadiko Orkestrarekin lankidetzan, bere gain hartu du ikuskizun liriko handi honen produkzio exekutiboa; jatorrizko produkzioa Amsterdamgo Dutch National Operak egin zuen, 2021ean.

Calixto Bieito arduratu da *Die ersten Menschen* operaren zuzendaritza eszenikoaz eta arlo musikala **Robert Treviño**k zuzentzen du, 82 musikarik osatutako **Euskadiko Orkestra** bere batutaz gidatuz. Ahots-interpretazioa nazioarteko lehen mailako lau abeslari egingo dute, zeinak ohikoak baitira munduko agertoki onenetan: **Annette Dasch, Daniel Schmutzhard, Simon Neal eta John Daszak dira**. Annette Dasch abeslari alemaniarra da jatorrizko ekoizpenean parte hartu zuen bakarra. Daniel Schmutzhard austriarrak eta Simon Neal eta John Daszak britainiarrek apirilaren 18an eta 20an Arriaga Antzokian eskainiko diren emanaldietan interpretatuko dituzte lehen aldiz Rudi Stephanek 1909 eta 1914 bitartean konposatutako pieza honen barruan

dituzten rola: zalantzarik gabe, erronka musikal handia da, oso exigentea, bai ahots bakarlarientzat, bai orkestrarentzat.

Aipatzekoa da, gainera, Euskadiko Orkestrak ikuskizun honetan duen egitekoa musikaren interpretazioaz harago doala. Orkestra eszenatokian bertan agertzen da, *Die ersten Menschen* sinbologian txertatuta, eszenan marrazten den paradisu bibliko horren parte gisa, non Adam, Eva, Kain eta Abelek osatutako lehen familia biblikoa ikusi ahalko dugun. Zehazki, orkestra unibertso bihurtzen da eta musikari bakoitzak kosmoseko izar bat irudikatzen du.

Aipatzekoa da, halaber, musikaren eta muntaiaren beraren konplexutasuna direla eta, Robert Treviñoren batuta nagusiaz gain (hau abeslarien atzean egongo da), orkestran bigarren zuzendari laguntzaile baten parte-hartzea izango dugula, **Roberto Baltar**-ena, hain zuzen, zeina abeslarien sarrera musikalez bakarrik arduratuko baita.

Indar handiko eszenografia eta bideoak

Istori horren konfigurazioa, eszenan gauzatzeari dagokionez, konplexua da eta Arriaga Antzokiak agertokiko espazioa bera egokitu behar izan du. Eszenografia **Rebecca Ringstek** sortu du, Calixto Bieitorekin lan egin ohi duen eszenografo ospetsuak, eta oso zeregin garrantzitsua izango du *Die ersten Menschen* operan. Eszenatokiaren hainbat metro besaulki patioan sartzen dira, ekintza integratu ahal izateko, patioaren eserleku kopurua murriztuz. Izan ere, Arriaga Antzokiaren berezitasun teknikoak direla eta, ikusleek askoz hurbilagotik jasoko dute eszenatokiaren gainean gertatzen dena, Holandako jatorrizko ekoizpenarekin alderatuta, eta horrek mesede egingo dio interpretatzen den istorio bizi eta zapaltzaileari.

Aipamen berezi bat merezi du halaber **Sarah Derendinger** ikus-entzunezko sortzailearen ekarpenak. Ohiko kidea da Bieitoren lantaldeetan, eta artistikoki oso txundigarriak diren bideoak grabatu ditu, edertasun estetiko handikoak, eszenaratzeari indar bisual handia emanez. Horrez gain, zuzeneko bideosormen-lan bat ere diseinatu du, eszenatokiaren gainean gertatzen diren ekintzak grabatzen dituzten bi kamerarirekin, eta zuzenean grabatu eta proiektatzen duen kamera finko zenital batekin.

Sortzaileen taldean daude, halaber, ikuskizuneko jantzien diseinatzaile **Ingo Krügler** eta argiztapenaren diseinuaz arduratu den **Michael Bauer**.

Pieza honi buruz

Die ersten Menschen paisaia primitibo zabal batean gauzatzen da. Bertan, Lurreko lehen familiak ezin du elkarren arteko borroka saihestu. Eva Adamengandik urrun sentitzen da, eta faltan botatzen ditu gaztetako urteak. Kain eta Abel semeek ikuspuntu oso desberdinak dituzte bizitzari buruz. Kain naturatik gertu sentitzen da eta sexu-desioz beteta dago; Abel, berriz, erlijio-sinesmenen arabera bizi da eta seme perfektuaren rola betetzen du. Kainek amarengan ikusten du bilatzen aritu den emakumearen arketipoa, eta jeloskor dago amak Abelekiko duen maitasunaz. Bekaizkeriak eraginda, anaia hilko du. Bakarrik gelditzean, gizateriari zer datorkion ulertuko dute Adamek eta Evak.

Lurreko lehen bi gizakiak elkarrekin maiteminduta zeuden. Hirugarren gizonak laugarrena hil egin zuen. *Die ersten Menschen*ek gizateriaren historia kontatzen du Bibliako lehen familian oinarrituz: Adam, Eva, Kain eta Abel dira protagonistak. *Die ersten Menschen*en, ikuspegi erabat ezberdinetik interpretatzen da Bibliako historia ezaguna. Otto Borngänger (1874-1916) alemaniar egileak «*Erotisches Mysterium*» (Misterio erotikoa) azpiztitulua jarri zion bere lan batean oinarrituta sortu zuen libretoari.

Bibliako historiaren interpretazio sinboliko hura bere garaian goia jo zuen psikoanalisian oinarritu zen, argi eta garbi: Freud entzuten da hondoan. Borngräberrek erakusten du familia primitiboa urratuta dagoela bi muturren arteko tentsioagatik; aurrez aurre daude, alde batetik, sexu-bulkada eta bizitza gutziatsua eta, bestetik, espiritualtasunari eskainitako bizitza. Familiaren zirkulu estuan, bizitzaren bi ikuspegi erabat desberdin irudikatzen dituzte bi anaiek. Istorioaren izaera erotiko eta intzestuzkoak eztabaida handia eragin zuen obrak argia ikusi zuenean.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 22 eta 52 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Die ersten Menschen

Konpositorea: **Rudi Stephan (1887-1915).**

Libretoa: **Otto Borngräber.**

Musika-zuzendaritza: **Robert Treviño.**

Eszena-zuzendaritza: **Calixto Bieito.**

Eszenografiaren diseinua: **Rebecca Ringst.**

Jantziak: **Ingo Krügler.**

Argiztapenaren diseinua: **Michael Bauer.**

Bideoa: **Sarah Derendinger.**

Antzezleak: **Annette Dasch, Daniel Schmutzhard, Simon Neal, John Daszak.**

Orkestra: **Euskadiko Orkestra.**

Zuzendari laguntzailea: **Nico Weggemans.**

Musika zuzendari laguntzailea: **Roberto Baltar.**

Produkzio originala: **Dutch National Opera, Amsterdam.**

Produkzio exekutiboa: **Arriaga Antzokia, Euskadiko Orkestrarekin lankidetzan.**

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus